

MARISA AMIGO

Liburu ezkutuariaren misterioa

Rara avis liber



SINOPSISIA



Irudi misteriotsu hau protagonistek gida gisa duten arrasto bakarra da, RARA AVIS LIBER izeneko sekretu berria deskubritzeko. Aurretik Zisne beltzaren misterioa eta Piratak ikastetxean abenturak bizi izan ondoren, Xabier, Gabriele, Maria, Noam, Kirsten eta Pablo haren letrak deszifratzeko irrikan ari dira.

Badakite RARA AVIS sare sekretua dela eta letren atzean arrastoak ezkututzen direla; eta arrastoek, altxorra aurkitu arte, Bilbao Hiribilduetako leku batetik bestera gidatuko dituzte. Badakite hor nonbait dagoela euren zain; eta misterioaren atzean ezkututzen dela... RARA AVIS LIBER. Non egongo ote da? Aspaldidanik hain ondo gordetako sekretua agerira aterako al dute?

Haiekin batera joan eta lagundu beste abentura honetan!

Liburuari buruzko informazio gehiago:



www.edicionesbeta.com

Jarrai iezaguzu hemen:



@EdicionesBeta



@edicionesbeta




@EdicionesBeta

MARISA AMIGO

Liburu ezkutuarien misterioa


Rara avis liber



ILUSTRATZAILEA: JESÚS DELGADO




Xabierri eta haren Pablo eta Noam lagunei



Liburu ezkutua misterioa

Rara avis liber





XABIER



GABRIELE



NOAM




MARIA



PABLO



KIRSTEN



1

Lapurreta mediatekan

Xabierrek, Noamek eta Pablok Mariarekin, Gabrielerekin eta Kirstenekin meriendatzen zuten Xabierren etxean. Ikastetxean, ikasgelakideak eta oso adiskide onak ziren, beti misterioak ikertu eta abenturak bizitzeko prest. Aste Santua baino lehenago, San Bizente elizan ezkutatutako altxor bat aurkitu zuten. Orain dela urte asko ondo gorde zituzten Ama Nahigabetuaren bitxi batzuk ziren. Aurkikuntza guztiz garrantzitsua izan zen eta Ama Birjinak Nahigabetuaren Ostiraleko prozesioan, bere jaiegunean, erakutsi ahal izan zituen bitxiak. Poz-pozik zeuden beraiek egindako deskubrimenduaz eta arratsalde horretan abenturaz hizketan ari ziren.

–Planoa deszifratzeko, trebeak izan gara gero! Ez zen batere erraza –esan zuen Pablok harro-harro–. Ez ziren letrak ikusten eta igarri behar izan genituen letrek seinalatutako lekuak.

Aurrez aurre zisne bi zituen planoak aurkitu zuten eta, **RARA AVIS** lema azpian, zisneek letra misterioatsu batzuk zituzten. Zer esan nahiko zuketena? Ordenagailuan begiratu eta zerbait arraro zegoela ondorioztatu zuten; izan ere, zisne bat beltza zen eta zisneak, berriz, zuriak izaten dira. Letra haien atzean baziren leku batzuk eta guztietan altxorra aurkitu ahal izateko arrastoak agertuko zitzaizkien. Horrexegatik heldu ziren Ama Birjinaren bitxiak aurkitu arte, lapurrek aurkitu ez zitzaizkien, elizan babestuta zeudenak.

–Beste behin hasiko ditugu klaseak, oporraldia amaituko zaigu –kexatu zen Noam, aurpegi ilunarekin, ogitarteko baten mokadua gustura jaten zuen bitartean.

–Baina *ikegtubehaggeko* beste *mistegio* bat dugu eta *hogi* oso *dibegtigaggia* da.

Gabriele alemana zen eta euskaraz oso ondo egiten bazuen ere, erreak ez zituen modu egokian ahoskatzen eta beste soinu bihurtzen zituen. Kirsteni ere berdin gertatzen zitzaion. Biak Mariaren adiskide onak dira eta azken honi ere izugarri gustatu zitzaion ikertzen jarraitzeko asmoa.

–Gabrielek badu arrazoia. Aurkitu behar dugu zer den **RARA AVIS LIBER** eta, klaseak hasi arren, guk beste zerbait askoz interesgarriagoa izango dugu esku artean.

Aldez aurretik egin zuten bilakuntzaren ibilbideko ezkutatoki batean, **RARA AVIS** gehi beste hitz berri bat erakusten zituen plano bat aurkitu zuten; hitz hori **LIBER** zen. Berehala bururatu zitzaien LIBURUA izango zela. **LIBER** latinetik dator eta, euskaraz, liburua esan nahi du.

–Orduan, **LIBER** liburua bada, nire ustez biblioteka batean izan beharko da. Non egongo da, ba?

–Oso ideia ona, Pablo, guretzat ezagunagoa den bibliotekan bilatzen hasi gaitezke: gu joan ohi garen bibliotekan bertan.

Bokatak amaitu bezain laster, seietan Indautxuko mediatekara joan ziren, sarritan bisitatu ohi zuten tokira, Xabierren etxebizitzatik hurbil. Bertan liburuak irakurri ahal zituzten, baita etxera eramateko maileguan hartu ere.

Maria gogoetan gelditu zen, Xabierren proposamena buruan bueltaka zebilkiola.

–Zentro hau berria dela dut gogoan. Orduan, nola edukiko dute ezkutatuta liburua horrenbeste urtetan?

Mariaren galderak pixka bat nora joan jakin gabe utzi zituen. Arrazoia zuen. Arrastoak antzinakoak ziren, orain dela urte asko idatzi zituzten. Beraz, ezkutatutako hori liburu bat izatekotan, babespean denbora dezente eman behar zuen.

Jaun batek azaldu zien **RARA AVIS** izeneko sare horren atzean zeuden pertsonen garai zailak zirelako babesten zituztela gauza baliotsu batzuk.

–Bai, baina agian birmoldatu egin dute eraikina eta biblioteka ordurako bazen hemen. Ez dakigu hori –gehitu zuen Pablok.

–Maileguan hartu nahi ditugunean, liburuen oharrak hartzen dituzten neskei galdetzea izango da onena.

Guztiz konbentzituta sartu ziren Xabierrek esandakoa galdetzeko asmoarekin. Neskak, atsegin handiz, mediatekak kultura zentro berriaren barnean atal bat osatzen zuela azaldu zien eta lehenago toki hori ardandegia izan zela. Alondegia zen bere izena. Beraz, aspaldiko garaian ez zen biblioteka. Pixka bat desilusionatuta gelditu ziren. Maria zuzen zebilen, eraikina berria zen eta orain dela urte gutxi inauguratu zuten. Hala ere, antzinako eraikinaren zati bat, ardandegia, kontserbatu zuten, guztiz ederra zelako. Argi zegoen, beraz, bertan ezin izan zutela liburu ezkutatua gorde.

–Tira, goazen liburuak ikustera, hemen garela aprobetxatzeko, agian batzuk maileguan etxera eraman ahalko ditugu –proposatu zien Xabierrek.

Apalategien artean sartu eta erakargarrienak iruditu zitzaizkienak begiratzen hasi ziren. Beste bisitetan bezala, noizbait irakurri bazituzten liburuak aurkitu zituztenean, euren artean mintzatzen hasi ziren.

–Begira, hau oso dibertigarria da. Abentura ugari gertatzen dira –esan zion Xabierrek Pablori.

Horrela zebiltzala, Mariak ohartarazi zien, orduantxe, gizon batek liburu bat patrikan sartu zuela.

–Begira, liburua patrikan sartu du. Hori debekatuta dago. Goazen, ba, gurekin izandako neska arduradunari kontatzera.

Maileguen oharrak hartzen zituzten erakusmahairantz joan zirenean, gizona arineketan igogailura zihoala ikusi zuten, irteteko asmoarekin.

–Goazen, ihes egingo du eta! –esan zuen Noamek.

Irteerako espazio mugatutik, igogailuen aurretik, igaro zenean, alarmak jo zuen. Orduan gizonak abiadura arindu zuen eta eskaileretan behera arrapaladan joan zen.

–Goazen korrika, bestela, atarira heldu bezain laster, kalera irtengo da!

Seiak batera ziztu bizian gizonaren atzetik abiatu ziren. Liburuak begiratu zituzten mediatekaren alde hura lehen solairuan zegoen eta segituan behe solairura heldu ziren. Hau oso zutabe originalez betetako atari handia zen. Xabierrek aurreikusitako bezala, gizona kultura zentroko sarrerako ate baterantz lasterka zihoan.

–Noam eta zuek, neskak, joan segurtasuneko zaindariari abisua emateko. Laguntzera etor dadila, bestela ezin izango dugu harrapatu.